



**Arartekoaren 2024R-348-23 Ebazpena, 2024ko otsailaren 22koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio kexak sustatu dituzten pertsoneri ordain diezaiela benetan bete zituzten tutoretza- eta koordinazio-eginkizunei esleitutako ordainsari-pizgarriaren guztizkoa, eta, bestetik, arlo horretako araudia berrikus dezala.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek (...) Arartekoak esku hartzeko eskatu zuen, esleituta zeuzkan irakaskuntza-eginkizunen ordainketari zegokionez.

Pertsona hori Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren kidegoko irakaskuntzako karrerako funtzionarioa da, eta kexan adierazi zuenez, 2022-2023 ikasturtean, haur-hezkuntzako talde bateko tutorea eta, gainera, zikloko koordinatzailea izan zen.

Era berean, adierazi zuen 2022ko irailaz geroztik lanaldi-murrizketa aitortuta zeukala adingabeak zaintzeagatik, eta, beraz, bi hereneko lanaldia betetzen zuela.

Kexa eragin zuen desadostasunaren arrazoia honako hau izan zen: tutoretzako eginkizunak betetzeagatiko osagarria zati batean baino ez zioten ordaintzen (hau da, guztizko zenbatekoaren bi heren); gainera, zikloaren koordinazio-eginkizunak betetzeagatiko osagarria, berriz, ez zioten ordaintzen.

Nominen zerbitzuan kontsulta bat egin ondoren, pertsona horrek erreklamazioa aurkeztu zuen, baina ezetsi egin zioten, irakaskuntzaren arloan aplikatzekoa den Akordio Arautzaileak<sup>1</sup> eta urtarrilaren 18ko 11/2022 Dekretuak<sup>2</sup> xedatutakoaren arabera. Manu horiek aurrerago aztertuko dira.

2. Arartekoak Hezkuntza Sailaren laguntza eskatu zuen, hark honako gai hauei buruzko informazioa eman ziezaion:
  - Zein dira tutoretzako eginkizunak eta zikloko koordinazio-eginkizunak betetzean dauden aldeak, lanaldi-murrizketa duten eta/edo eginkizun horiek

<sup>1</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa, uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak onartu zuena.

<sup>2</sup> 11/2022 Dekretua, urtarrilaren 18koa, honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako maisu-maistren lanpostu-zerrendak onartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, Helduen Hezkuntzako ikastetxeetan, Urrutiko Heziketako Euskal Institutuan eta Hezkuntza Ordezkaritzetan.



aldi berean betetzen dituzten pertsonentzako ordainsaria eta lanaldi osoan lan egiten duten eta eginkizun batzuk ala besteak esleituta dituzten pertsonentzako ordainsaria desberdina izatea justifikatzen dutenak?

- Badago eskaera ezesteko erabili den bestelako oinarri juridikorik, ordainsarrietan dagoen alde hori justifikatu ahal izateko?
- Badauka hezkuntza-administrazioak tutoretza- eta koordinazio-eginkizunak betetzegatik ordaintzeko prestutasunik, horretarako ezarrita dagoen guztizko zenbatekoa emanda?

3. Erantzun-txostenak zioenez, ordainsari-aldearen zergatia ez zegoen lotuta eginkizunak betetzean inongo alderik egotearekin, irakasle-lanaren betetze-maila orokorrarekin baizik, ikasleekiko arduraldia aintzat hartuta.

Jarraian, txostenean azaldu zen, oro har, lanaldi-murrizketa baliatuta lan egiten duten irakasleek ikasleekin ematen duten arduraldi osoko lanaldi osoko irakasleek ematen dutena baino txikiagoa dela, eta, beraz, lanaldi murrizteko irakasleek ez dute tutoretza oso-osorik betetzen, beste batzuek bete behar dituztelarik.

Aurrekoaz gain, azaldu zen ikasleen tutoretza egunerokoan ere egiten dela, ikasleen etengabeko balorazioa eta ebaluazioa egiteko modua ematen duten irakaskuntza-orduak emanda. Beraz, ezin da ikasleen tutoretza osoz hitz egin irakasleek lanaldiaren ehuneko 100 haiekin ematen ez duten kasuetan.

Kargu bakar baten ziozko ordainsariari dagokionez, pertsona bati bi kargu edo gehiago esleitu bazaizkio, lanpostuen zerrendak onartzeko tresnak arautzen duenera bidaltzen du txostenak, beste ezer gehitu gabe.

Azkenik, erantzunean adierazi zen ez dagoela Hezkuntza Sailak adierazitakotik kanpoko oinarri juridikorik.

4. Izapide horiek egin bitartean, beste bi pertsonak ((...) eta (...)) Ararteko erakundera jo zuten eta adierazi zuten tutoretza-eginkizunak betetzeagatiko osagarriaren zati bat baino ez zutela jaso, nahiz eta eginkizun horiek guztiak oso-osorik bete zituzten. Pertsona horien kexak ordurako hasita zegoen espedienteari erantsi zitzaizkion..

Arartekoak beste idazki bat bidali zuen Hezkuntza Sailera, gaiaren funtsari buruzko hainbat ohar jasota, alderdi hauei buruzko informazioa eskatzeko helburuz:





- Tutoretza-ekintzaren berezko eginkizunetatik, zein ez zituzten egin kexak sustatu zituzten pertsonak?
  - Eginkizun horiek bete ez bazituzten, irakasle-taldeko zein pertsona zehatzek bete zituzten eta nola esleitu zitzaizkien eginkizunok?
  - Esleipen eta jardun horiek izan baziren, beste pertsona horiek pizgarri ekonomiko gehigarriaren zatirik kobratu al zuten?
  - Gauza bera galdetu behar da lehen kexaren sustatzaileak zikloa koordinatzeko bete zituen eginkizunei dagokienez.
5. Orduko horretan, Hezkuntza Sailak bidalitako erantzun-txostenean, laburbilduz, honako hauek zehaztu ziren:
- Ezin da xehetasun osoz zehaztu zer tutoretza-/koordinazio-eginkizun bete zituzten interesdunek eta zein ordezkoeak.
  - 2015eko urtarrilaren 22an, Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak ezarri zuen ikastetxe batek ziklo/etapako tutore- edo koordinatzaile-lanak pertsona bakarrari esleitu ahal dizkiola, eta baimendutako talde bakoitzeko osagarri hori jasotzeko eskubidea izango duela, eta, beraz, ezin zaiola aldi berean bi pertsonari ordaindu. Hala, lanaldi-murrizketen kasuan, eginkizunak benetan betetzen dituen pertsonari dagokio kobratzea, baina lanpostuaren arduraldiaren arabera ezarritako ehunekoan soilik.
  - Lehendik bidalitako erantzunean beharrezko informazioa eman zen jarritako kexari erantzuteko. Hala, hartutako erabakiarekin ados egon ezean, interesdunek administrazioarekiko auzibidera jotzea zeukaten.

### Gogoetak

1. Erakunde honen iritziz, ez da beharrezkoa justifikatzea tutoretza-eginkizuna hezkuntza-prozesuaren funtsezko zutabeetako bat dela, eta, hartara, funtsezko osagaia kalitatezko eskola lortzeko, gurea bezalako gizarte aurreratu baten eskaerekin bat datozen emaitzak lortzeko xedez.

Horretaz gain, eta ikastetxe publikoetako irakasleei eragiten dienez gero, oinarrizko legeriak berak galdatzen die hezkuntza-administrazioei tutoretza-eginkizuna eta zentroarekiko arduraldia aitortzeko, pizgarri profesional eta ekonomiko egokiak emanda.



Hala, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren<sup>3</sup> 105.2 artikulua honako hau dio:

*“Hezkuntza-administrazioek, ikastetxe publikoetako irakasleei dagokienez, honako alderdi hauek bultzatuko dituzte:*

*a) Tutoretza-funtzioa aitortzea, bidezkoak diren lanbide-pizgarrien eta pizgarri ekonomikoen bidez.*

*b) Irakasleen lana aitortzea bidezkoak diren pizgarri ekonomikoen eta lanbide-pizgarrien bidez, ikastetxeari eskainitako dedikazioa eta hezkuntza-berrikuntza dakarten planen ezarpena kontuan hartuta”.*

lido horretan, gaur egun indarrean dagoen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioak<sup>4</sup> jasotzen du alderdi sinatzaileek kargu eta eginkizun jakin batzuen egikaritzea sustatzeko borondatea dutela, uste osoa baitute jardura horrek hezkuntza-sistemaren berezko premiei eta, beraz, irakaskuntzaren kalitateari ematen zaien arreta hobetzen lagunduko duela.

Jarraian, testu horrek zehazten du tutoretza- edo zikloaren koordinazio-eginkizunak betetzeagatiko pizgarri ekonomiko gehigarri bat badagoela, halako moldez non eginkizun horiek betetzen ari den pertsonak pizgarri hori jasotzeko eskubidea aitortua duen.

Zehazki, akordio horren 73.2 artikulua horretaz dihardu, eta hau dio:

*“Horrela, bada, irakaskuntzako lanbide-karrera negoziatu artean, indarrean egongo da tutoretza-funtzioak benetan betetzea saritzeko pizgarri ekonomiko gehigarria Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako erregimen orokorreko irakaskuntzetako, LHko heziketa-zikloetako eta Helduen Hezkuntzako ikastetxeetako Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat, bai eta heziketa-zikloetakoei eta ziklo-koordinatzaileentzat ere, dagozkien urteko zenbatekoetan.*

*Halaber, ordainsari-sistema berria ezartzeko proposatutakoak kontuan hartuta, Batzorde paritarioak aztertu egingo du aukerarik dagoen aurreko paragrafoan adierazitako funtzioak betetzen ez dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleei banan banakako pizgarri bat arautzeko ikastetxearentzat beren-beregi lan egitearren.”*

2. Bestalde, Hezkuntza Sailak beste bi tresnatan oinarritzen du bere erabakia. Tresna horietan, ondokoa adierazten da:

Lehenik eta behin, Akordio arautzailearen 61. artikulua, zeinak, oro har, adinagatiko, osasun-arrazoiengatiko eta ikasketengatiko ordutegi-murrizketak arautzen dituen, bai eta inolako arrazoirik behar ez duten lanaldi-murrizketak ere,

<sup>3</sup> 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.

<sup>4</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa, uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuak onartu zuena.



ezartzen du azken bi tresna horietako bat emateak aldean ekarriko duela ordainsari guztien murrizketa proportzionala.

Halaber, geuk irizpena emateko heldu diren kasuetako batean, behintzat, Akordio horren 49. artikulua, adingabeak zaintzeko lanaldi-murrizketa arautzen du eta, gainera, ordainsarien murrizketa proportzionala ere xedatzen du.

Beste alde batetik, kargu edo eginkizunen pilaketari dagokionez, Hezkuntza Sailak lanpostuen zerrendak urtero onartzen dituen tresnan txertatutako xedapen gehigarri bat<sup>5</sup>aipatu du; xedapen gehigarri horren edukia ondokoa da:

*“Pertsona batek bi kargu baditu, osagarri altuena duen karguagatik soilik ordainduko zaio.*

*Era berean, zerbitzuaren beharrak direla eta, irakasle bati zuzendaritzako kargua edo kargu akademikoa eta aldi berean talde bateko tutoretza edo zikloko koordinatzailearen funtzioak esleitu ezker, osagarri altuena duenagatik ordainduko zaio soilik: izan karguari dagokion osagarria, izan tutore- edo ziklo-koordinatzailearen funtzioak benetan betetzeagatik dagokion pizgarri ekonomiko gehigarria.”*

3. Kexaren sustatzaileek erakunde honi adierazi zioten, adingabeak zaintzeko lanaldi-murrizketa onartuta izan arren, tutoretzari eta zikloaren koordinazioari dagozkion eginkizun guzti-guztiak osorik betetzen ari zirela.

Era berean, adierazi zuten eginkizun horiek ezin direla era proportzionalan bete, ezpada, eginkizunak esleitu zaizkion pertsonak oso-osorik bete behar dituela; kasu honetan, interesdunek, eta, beraz, osorik gauzatu behar zituzten, bai lan-ordutegiaren barruan, bai laneko ordutegitik kanpo, bai ikastetxean bertan, bai ikastetxetik at.

Horri dagokionez, adierazi zuten lansarien murrizketa proportzionala bidezkoa dela eta onargarria izan daitekeela murrizketa horretaz gozatzen duen pertsonak lanpostuan jardutean betetzen dituen zereginak eta funtzioak murriztea dakarrenean. Aitzitik, murrizketa hori ez litzateke bidezkoa izango eginkizunak eta zereginak oso-osorik egin behar izanez gero, lanak berdina izaten jarraituko lukeelako.

---

<sup>5</sup> Zazpigarren xedapen gehigarria da, eta ondoko tresnetan ageri da:

- 11/2022 Dekretua, urtarrilaren 18koa, honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako maisu-maistren lanpostu-zerrendak onartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, Helduen Hezkuntzako ikastetxeetan, Urrutiko Heziketako Euskal Institutuan eta Hezkuntza Ordezkaritzetan.
- 59/2023 Dekretua, apirilaren 4koa, honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Saileko mendeko ikastetxe publikoetako maisu-maistren lanpostu-zerrendak onartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, Helduen Hezkuntzako ikastetxeetan, Urrutiko Heziketako Euskal Institutuan eta Hezkuntza Ordezkaritzetan.





Hala, pertsona horien iritziz, horixe gertatzen da tutoretzako eginkizunekin edo zikloaren koordinazio-eginkizunekin; izan ere, lanaldi-murrizketa aitortuta duen lanpostu batean aritzen den pertsona bati esleituta egon arren, oso-osorik gauzatu behar baitira.

4. Hala berean, pertsona horiek azpimarratu zuten ordainsari-pizgarriak arautzen duen Akordioak dioena: eginkizun jakin batzuk betetzearen ziozko konpentsazioa.

Illo horretan, nabarmendu zuten pizgarri hori ez dela sortzen lanpostu jakin bat betetzeagatik edo horretan jarduteko moduagatik, baizik eta, hain zuzen ere, eginkizun horiek benetan betetzeagatik, eta, beraz, haien iritziz, ezin dira ordaintzetik baztertu azken inguruabar horretan dauden pertsonak, nahiz eta, aldi berean, beste inguruabar batzuk eta gerta daitezkeen (hala nola irakaslearen lanpostuari esleitutako lanaldia), hain zuzen ere, inguruabar horrek eragozpiderik ez dakarrelako esandako eginkizunak oso-osorik betetzeko.

Hori dela eta, eginkizunok bete izanaren egiaztapena izan beharko litzateke, betiere pertsona horiek emandako argudioari jarraituz, haiei dagozkien osagarrien guztizko zenbatekoa ordain dadila erabakitzeke arrazoi bakarra eta nahikoa.

5. Beste alde batetik, kexak sustatu zituzten pertsonak aipatu zuten tratu-desberdintasuna sortzen dela haien egoeran lanaldi osoko lanpostu batean aritzean tutoretzako eginkizunak edo zikloaren koordinazio-eginkizun horiek betetzen zituzten pertsonen egoeraren aldean.

Egin-eginean ere, haien arrazoibidearen arabera, nahiz eta bi egoera horietan eginkizun horiek berdin-berdin beteko liratekeen, lanaldi osoko lanpostua betetzen ez dutenek, ordea, ez dute jasotzen lanaldi osoan dihardutenek jasotzen duten ordainsari bera, eta horrek, euren ustez, bereizkeriazko tratua eragiten du eta, eginkizun berdinak betez gero, enplegatu publikoek ordainsari berdinak jaso behar dituztela dioen jurisprudentziako iritzia aurrakoa.

Horren haritik, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 1998ko 4403/1995 errekurtsioari lotuta maiatzaren 29an emandako epaia aipatu zuten. Hala, epai horretan, besteak beste, ondoko arrazoibideak eman ziren:

*“Aplicado al supuesto de hecho presente, el Tribunal Constitucional en sentencia 161/1.991, de 18 de Julio tiene dicho que, “cuando el empleador o empresario es la Administración Pública, en las relaciones con su personal rige el principio de que, ante supuestos de hecho*



*idénticos cualquier diferencia de trato retributivo deberá estar objetivamente justificada, pues de lo contrario será discriminatorio y, en consecuencia, lesivo del derecho a la igualdad consagrado en el artículo 14 de la Constitución."*

*Este razonamiento lo apoya el Alto Tribunal en que, "la Administración Pública no se rige en sus relaciones jurídicas por el principio de autonomía de la voluntad, sino que debe actuar con pleno sometimiento a la ley y al derecho, (art. 103.3 de la C.E.). Por ello, y como poder público que es, está sometida al principio de igualdad ante la ley, que constitucionalmente concede a los ciudadanos el derecho subjetivo de alcanzar de los poderes públicos un trato idéntico para supuestos iguales (ATC 233/83). Es por ello, (STC 31/84, y 145/91), que solo puede tomarse en consideración para calibrar la legitimidad de la diferencia de trato en materia retributiva, el trabajo efectivamente prestado y la concurrencia en él de circunstancias objetivamente acreditadas, pues sólo la efectiva diferencia entre los trabajos prestados, valorados en forma no discriminatoria, permitirá diferenciar a efectos retributivos, como se desprende de la esencial vinculación entre el salario y el trabajo de que aquel resulta ser contra prestación. Dicho de otro modo, una vez afirmada la identidad de servicios, funciones y cometidos que realizan unos y otros funcionarios, la diferenciación en complementos retributivos es discriminatoria por establecer un trato retributivo distinto y sin justificación objetiva alguna (STC 161/91, de 18 de Julio)".*

6. Azkenik, pertsona horiek administrazioarekiko auzien epaitegien hainbat epai aipatu zituzten. Epai horietan, interesdunen antzeko egoeretan, kexagileek tutoretza-eginkizun espezifikoak betetzeagatik aitortutako zenbatekoaren guztizkoa kobratzeko eskubidea zutela ebatzi zen.

Kexagileen adierazpenen arabera, epai horietan aintzat hartu zen kasu horietan guztietan tutoretzako eginkizunak oso-osorik bete zirela, nahiz eta eragindako pertsonak lanaldi partzalean lan egin zuten aldi jakin batzuetan; horrezaz gain, adierazi zuten administrazioak ez zuela egiaztatu eginkizunak zati batean bakarrik gauzatu zirenik.

7. Ondorioz, Arartekoaren iritziz, aztergai darabilgun kasu honetan, garrantzikoena da zehaztea tutoretzako eginkizunak edo zikloaren koordinazio-eginkizunak betetzeko izendatu diren pertsonak eginkizun horiek oso-osorik bete dituzten ala ez. Esan barik doa eginkizun horiek berariaz zehazten eta agertzen direla ikastetxe publikoetako ikasturtea antolatzeko urteko ebazpenetan, eta, beraz, guztiz identifikagarriak eta egiaztagarriak dira.

Ildo horri jarraitu zion defentsa-erakunde honek Hezkuntza Sailera bidalitako laguntza-eskeetan. Eskaera horietan, ordainsarien arteko aldea bidezkotu zezakeen alderik ba ote zegoen jakin nahi zen, edo, hala balegokio, eginkizun horiek irakasle-taldea osatzen zuten pertsona batzuen artean banatzen ote ziren, tresna arautzaileek eginkizunok behar bezala betetzeari ematen dioten garrantzia aintzat hartuta.



Hasiera batean, gorago esan den bezala, Hezkuntza Sailak igorritako txostenean adierazi zenez, irakasleek lanaldiaren ehuneko 100 ikasleekin betetzen ez dutenean, ezin da oso-osorik betetako tutoretzaz hitz egin, pertsona horien lana beste batzuen laguntzaz osatu behar baita.

Arartekoak ulertu zuen emandako erantzunak auziaren inguruko hainbat alderdi argitzea eskatzen zuela, inguruabar hori behar bezala ulertu ahal izateko, eta, beraz, horri buruzko hainbat gogoeta igorri zizkion Hezkuntza Sailari.

Horrela, dagoeneko aipatu diren tresnen garrantzia oinarri hartuta, erakunde honek Hezkuntza Sailari jakinarazi zion, bere ustez, ikasleen ikuspegitik, tutoretzaren emaitzak osoa eta egokia izan behar duela, bai horretarako berariaz izendatutako pertsona lanaldi osoan dagoela, bai lanaldi murriztuan lan egiten duela.

Eta hori horrela da, bestela, tutoretza-ekintzaren helburuak larriki kolokan jarriko liratekeelako, eta, ondorioz, Hezkuntza Sailak bermatu behar duen hezkuntza-sisteman eta heziketa- nahiz hezkuntza-prozesuan tutoretzak izan behar duen funtsezko zeregina.

Aurrerago, Arartekoaren idazkian adierazi zen Hezkuntza Sailak bidalitako txostenean ondoriozta zitekeela, lanaldi-murrizketen kasuan, tutoretza-ekintza horri dagozkion eginkizunak ez dituela izendatutako pertsonak bakarrik betetzen, ezpada, irakasle-taldeko beste pertsona batzuek ere bai.

Horri dagokionez, Arartekoak gogorarazi zuen, edozein moduan, ezin dela bazter utzi irakasle-talde osoak tutoretza-ekintzan parte hartzea ezinbestekoa dela, nahiz eta tutoretza-eginkizunak betetzeko izendatu den pertsonak lanaldi osoan jardun (ildo horretan, erakundeak adierazi zuen eginkizunen artean irakasle-talde osoari eragiten dioten batzuk badaudela, besteak beste, irakasle-taldea osatzen duten irakasle guztien hezkuntza-jarduera koordinatzea, irakasleen bilerak eta ebaluazio-saioak antolatzea eta horietan buru jardutea, ikasleen etengabeko ebaluazio-prozesua koordinatzea, edo, irakasle-taldearekin batera, ikasleen ebaluazioari eta mailaz igotzeari buruzko erabaki egokiak hartzea).

Horrenbestez, Arartekoak ondorioztatu zuen ezen, lanaldi-murrizketetan, tutoretza-jarduerak betetzeko izendatzen den pertsonari beste pertsona batzuek laguntzen diotela tutoretza-eginkizunak betetzen, eta laguntza hori ezingo litzatekeela jo gainerako irakasle-taldearen ohiko laguntza gisa; hau da, irakasle-







taldeak eginkizun horiek intentsitate handiagoz hartu beharko lituzke bere gain eginkizun horiek, behar bezala zehaztuta.

Horregatik, defentsa-erakunde honek interesa agertu zuen kexaren sustatzaileek tutoretzako eginkizunetatik edo zikloaren koordinazio-eginkizunetatik zein ez zuten egin jakiteko, eta, hala izanik, irakasle-taldeko zein pertsona zehatzek bete zituzten eta nola esleitu zitzaizkien jakiteko.

Era berean, araudiak eginkizun horiek betetzeagatik pizgarri ekonomikoa kobratzeko eskubidea ematen duela arautzen duen heinean, Ararteko erakundeak interesa agertu zuen beste pertsona batzuek hasieran horretarako izendatutako pertsonak betetzen ez zituen eginkizunak euren gain hartzeak pizgarri horren zati bat jasotzea ba ote zekarren jakiteko.

Horren erantzunean, ordea, Hezkuntza Sailak adierazi zuen ezinezkoa zela kexa sustatu zuten pertsonak egiatan bete zituzten eginkizunak zehazterik, baina, nolana ere, ordainsari ekonomikoa eginkizun horiek betetzeko izendatzen den pertsonari bakarrik dagokiola.

Adierazpen horiek ikusita, ohartu gara Hezkuntza Sailak ez duela inolako irizpen-elementurik aurkeztu, eginkizun horiek betetzeko izendatu diren pertsonak, euren lanpostuan lanaldi murriztua aitortuta dutenek, esleituta dituzten eginkizun guztiak oso-osorik bete ez dituztela egiaztatzeko, ez eta hori pentsatzeko zantzurik badagoela igartzeko ere.

Horregatik guztiagatik, erakunde honek lankidetzaren eskaeretan erabilitako argudioari jarraituz, ondoriozta daiteke tresna horiei dagozkien eginkizunak oso-osorik betetzen direla eta horretarako izendatzen den pertsonak betetzen dituela, bai lanaldi osoan jarduten duen kasuetan, bai lanaldi-murrizketaren bat duen kasuetan, hori guztia irakasle-taldea osatzen duten gainerako kideen laguntza behar izatea alde batera utzita, ez kasu horietan bakarrik.

Illo horretan, erakunde hau bat dator kexak sustatu dituzten pertsonak egindako eta Arartekora helarazitako gogoetekin; hau da, langileek eginkizun berdina betez gero, ordainsari berdina jaso beharko lukete, bestela, gure ordenamendu juridikoan onargarria ez den tratu-desberdintasuna gertatzen ari dela esan beharko baikenuke.

8. Tutoretza-eginkizunak eta zikloaren koordinazio-eginkizunak aldi berean betetzeagatik ez ordaintzeko arrazoiari doakionez, Ararteko erakundeak Hezkuntza Sailari adierazi zion, hala ezartzen duen xedapenez gain, hezkuntza-





administrazioak ez zuela inolako oinarri juridiko gehigarriak aurkeztu, ez eta xedapen horren funtsa azal zezakeen inolako gogoeta materialik ere, xedapena bera aipatzeaz harago.

Gogoeta horiek ez ziren batere aztertu Hezkuntza Sailaren erantzun-txostenean, eta, beraz, ezin izan da zehaztu xedapen horrek oinarri juridiko arrazoiturik eta sendorik duen, baina argi dago praktikan zer ondorio dakartzan: pertsona batek bi tresnari edo karguri edo gehiagori dagozkion eginkizunak osorik bete behar izatea eta horietako bati lotutako ordainsaria bakarrik jasotzea; eginkizun horiek pertsona batzuei esleituta baleude, berriz, guztiek jasoko lituzkete horien ziozko zenbatekoak, edo, azken batean, pertsona horrek egin beharko lituzke, horregatik kobratu gabe, gainerako pertsonak pizgarri ekonomikoa jasota betetzen dituzten eginkizun berdinak.

Horregatik guztiagatik, eginkizun berdinak gauzatzeari lotutako ordainsari-berdintasunari buruz arestian adierazitakoa ikusita, eta beste edozein irizpen-elementurik ezean, erakunde honek uste du xedapen horrek tratu-desberdintasuna eragiten duela, eta hori ez dela onargarria gure ordenamendu juridikoan.

9. Ebazpen honetan aztertutako hiru kexei gagozkiela, adingabeak zaintzeko lanaldi-murrizketa eskatu zuten edo lanaldi murriztuko lanpostuak betetzen zituzten emakumeak dira eragindako pertsonak.

Hezkuntza Sailera bidalitako laguntza-eskearen xede izan ez bada ere, erakunde honek galdetzen dio bere buruari ea, beste lan-eremu batzuetan gertatzen den bezala, unibertsitatez kanpoko irakasleei dagokienez ere, adingabeak zaintzeagatik lanaldi-murrizketak eskatzen dituzten gehien-gehienak emakumeak diren.

Aztergai darabilgun auzian, espediente honetan jaso den ordainsari-murrizketaren azterketa ez litzateke lehen adierazitako argudio eta ondorioetan geratu behar; hain zuzen ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ere eragin kaltegarria izan dezakeelako.

10. Azkenik, Hezkuntza Sailaren bigarren txostenak baietsi zuen aurretik emandako erantzunak beharrezko informazioa ematen zuela jarritako erreklamazioari eraz erantzuteko, nahiz eta, arestian adierazi den bezala, Ararteko erakundeak aurretiaz adierazi zion informazio hori handitu behar zuela alderdi jakin batzuez denaz bezainbatean.





Eta adierazi zuen, bestalde, administrazio-prozedura erkideari jarraituz, interesdunak Hezkuntza Sailak erabakitakoarekin ados egon ezean, pertsona horiek administrazioarekiko auzien bidea baliatzea zutela beren eskubideen alde egiteko.

11. Ildo horretan, erakunde honek Hezkuntza Sailari gogorarazi nahi dio, berriro ere, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak<sup>6</sup>, 23. artikuluan, xedatzen duena, euskal administrazio publikoek laguntzeko eskeei eta informazio-eskakizunei edo argibideei lotutako laguntzeko betebeharrari dagokionez:

*“9.1 Atalean esandako Erakundeetako Ihardutze-sailak, eskatu dakizkien xehapen, agiri, argipide edo garbitasun guztiak lehentasunez eta presaz ematea behartuta daude.”*

Bestalde, justizia-auzitegien babesaz denaz bezainbatean, argi dago, Hezkuntza Sailak txostenean adierazi duen bezala, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea dela ordenamendu juridikoak pertsonen esku jartzen duen aukeretako bat, haien eskubide eta interes legitimoak defendatzeko.

Hala eta guztiz ere, erakunde honek ere behin baino gehiagotan adierazi duenez, jarduteko bide horretaz gain, ordenamendu juridikoak aukera ematen die administrazio-jarduera zehatz batekin ados ez daudenei Arartekora jotzeko eta kexa aurkezteko, defentsa-erakunde honek herritarrak babesteko eginkizuna bete ahal izan dezan, lehen aipatu dugun otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 1.2 artikulua dioen legez, Euskal Administrazio Publikoaren aginte- eta botere-gehiegikerien eta zabarkerien aurrean.

Era berean, lege horrek berak ahalmena ematen dio Arartekoari kexetan mahairatutako kasuak aztertzeko, dagozkion balorazioak egiteko, ondorioak funtsatzeko beharrezko informazioa eskatzeko eta, hala badagokio, administrazio publikoei bidezko gomendioak emateko, espediente honetan gertatu den bezala.

Ildo horretan, erakunde honek ez du ulertzen Hezkuntza Sailak bidalitako txostenaren azken tartekian jasotako edukiaren jarrera eta ez dator bat hausnarketarekin; izan ere, administrazio-erabaki batekin ados egon ezean, errekurtso judiziala aurkeztu baino lehen, Arartekoari kexa bat aurkeztuta ere bideratu baitaiteke.

---

<sup>6</sup> 3/1985 Legea, otsailaren 27koa, Ararteko erakundea sortu eta arautzekoa.



Aitzitik, Arartekoaren ustez, administrazio-jarduera batekin ados ez egoteagatik, behin eta berriz bide judizialera jotzeko iradokitzen bada, beste aukera hori bazter utzita, esan daiteke, Arartekoaren aburuz, ez direla behar bezala ulertzen Arartekoari esleitutako kontrol-eginkizunak, ez eta gure Autonomia Estatutuak euskal herritarren defentsa-erakundeari esleitzen dion ahalmena ere, manu hori onartzen duen diseinu instituzional eta juridiko-administratiboaren esparruan.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Hezkuntza Sailari, erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### GOMENDIOA

Kexak sustatu dituzten pertsonen ordainsariari buruz hartutako erabakia berrikus dezala, eta benetan bete zituzten tutoretzako jarduerari eta zikloaren koordinazio-eginkizunei esleitutako ordainsari-pizgarriaren guztizko zenbatekoa ordain diezaiela.

Gaia arautzen duen araudia berrikus dezala eta, aurrerantzean, benetan bete diren tutoretzako eginkizunak eta zikloaren koordinazio-eginkizunei esleitutako ordainsari-pizgarriaren guztizko zenbatekoa ordain dezala, alde batera utzita hura garatzeko izendatu den pertsonak lanaldi osoan edo lanaldi murriztuan diharduen, edo eginkizun horiek aldi berean betetzen dituen.

